

B

BARREN

TOKIKOM

Asteburu betea





konfiantzan IKASTOLA

HH 0-1ean
irailean eta urrian hasteko
matrikula zabalik
maiatzaren 20tik ekainaren 1era

elgoibar ikastola



Ordutegi zabala :
7:30 - 19:30
Jai zubietan eta oporretan
irekita




OSASUN GIDA



OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00

San Bartolome, 10
Elgoibar
Tel: 943 743 734

**183\12
UZURI**

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00
San Frantzisko, 21

Elgoibar
Tel: 943 740 359

MASAJEAK

22\12

VICTORIA IRAEGI

Esku terapiak
• Kiropraxia
• Dranatzaile linfatikoa
• Osteopatia
• Kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea)

Astehenetik
Ostiralera:
8:00 / 14:00

San Frantzisko
kalea, 40 (atzealdea)
Elgoibar
Tel.: 943 740 770

HORTZ KLINIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplante-ak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

OTORRINOLARINGOLOGIA

UZURI

- Entzumen protesia
BERRIA!
- Tapoiak neurrira (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00

San Frantzisko, 21
Elgoibar
Tel: 943 740 359

FISIOTERAPIA

271\12

AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 531 953
Tel.: 669 565 745

**177\12
FISIO&MÁS**

FISIOTERAPIA AURRERATUA ETA KIROL BERREGOKITZEA

- Esku-terapia.
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).
- Mesoterapia homeopatikoa:
+ Traumatologia.
+ Estetika (zelulitisa, estriak)

OSASUNERAKO ARIKETA AGINDUA (Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

ENTRENAMENDU GIDATUA.

Aupa Zen Medikuntza Estetika Zentrua

Jausoro plaza, 1-Elgoibar (Sta. Klaran, Udaletxeko zubitik gertu)
Tel.: 667 95 36 28



Mikel
Olaizola

Aupa, Danele! Azkenean ez zinen Maskaradetara animatu...

Ederra izan zen ba. Aurten gainera birritan: bat Lakarrin, kantu eta dantzekin emozionatuta. Bestea, Donostian, han ere gorriak eta beltzak elkarren aurka, eta hauek basati, egurrean. Autentikoagoa, autentikoen-
gia ederra izateko.



Danele
Sarriguarte

Ene bada, Mikel. Barre hausnarrarazleak egin ditut emaila irakurtzean, baina hau ataka gaiztoa nirea orain, alegia, hau marroia laga didazuna, elgoibartiano. Bistan da zozaari dagokiola etsipenaren eta labandaka ironiko brillanteen monopolioa, eta nik erosoan jokatzeko dudak eremua izanik ere, eta bat natorren arren esandako gehienarekin, bele gisa saiaturiko naiz hau ez dadin bilakatu animoak are gehiago hondoratuko dizkigun Elgoibarren-gaitzen-zerrenda (funtsean

azpigaitz asko biltzen dituen gaitz nagusi bat besterik ez bada ere, nahiko luze joko bailuke), baizik eta gu denongan positiboki eragin dezakeen zerbait (benetan esan al dut nik hori?).

“Gurutzada anti-kartelista izenda genezake asteroko garbiketa errituala”

Kostatuko zait, batez ere (castellanoz dioten moduan) oraindik bero dagoelako astebete iraun zezaten pegatzen saiatu nintzen azken kartelen hilotza. Ez dut kontu horrekin setatu nahi, baina oraindik harrizten nau batzuen setak kartelen kentzeari dagokionean, gurutzada anti-kartelista izenda genezake asteroko garbiketa erritual hori. Badakit arrazoiketa razional bat jasoko dudala bueltan, alegia badaudela kartelak jartzeko zehazki xedatutako guneak, baina ahula iruditzen zait argudioa, eta paretan uestezko zatartzea ez hain terriblea.

Motzean: baldintzatuta egonik ere ez gaudenez determinatuta egin diezaiogun aurre nihilismo elgoibartarrari eta talde-psikoanalisiak azaleratuko lukeen kaka mokordo erraldoiari (hori bai anti-estetikoa), eta eutsi diezaiogun porlan artean bizirauten dihardutenak astintzeko asmoari. Eredu polita utzi ziguten donostiar maskaradako gorri-laranjek.

Oharra: etsi eta eutsiren artean bokal bateko alde baina ez dago.

“Zenbat eta isilago, orduan eta lasaiago.

Amen, amen, eta trankil txikiteatu”

raien ametsa ezereza da, heriotza. Zenbat eta isilago, orduan eta lasaiago, orduan eta hobe. Amen, amen, eta trankil txikiteatu.

Eta bitartean, kontu potoloak oharkabean pasatzen dira, paralisiak jarraitzen du. Etsita nago. Elgoibarren iraultzarako aukera bakarra ikusten dut: Bilduko deabru gaiztoaren batek atez atekoa inposatzea. Orduan, bai, manifik eta kale borroka!

Ah, edo bestela Merkadilloa berriz ere lekuz aldatzea. Nostalgiaz gogoratzen dituzu zuk ere barrikadetako garai haiek, Danele?

II. URTEURRENA

JOSE LUIS ELUSTONDO GORRITI

2011ko maiatzaren 24an hil zen.

Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, maiatzak 25, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

Joango zaretanoi eskerrak alde aurretik.



Gazteek dituzten aisialdirako joeren eta premien inguruko diagnostia egingo du Elgoibarko Udalak

13 eta 30 urte bitarteko gazteen aisialdi-ohiturak aztertuko ditu, besteak beste.

Elgoibarko Udalak eta Eroski Fundazioak elkarlanean aztertuko dituzte Elgoibarko gazteen aisialdirako joerak eta premiak. Maialen Arangurennek, Elgoibarko Udaleko Gazteria teknikariak, gazteen aisialdi ohituren inguruko diagnosi parte-hartzailea egingo dutela azaldu du. Datorren hilean jarriko dute martxan diagnostia eta abendurako jasotako datuak eta ateratako ondorioak aurkezteko moduan izango direla aurreikusten dute. Gazteek euren ohituren gaineko hausnarketa egiteko eta parte-hartzea eta elkarreragina sustatzeko balio dezaketen datuak jaso nahi dituzte, eta ondorioekin, ekintza-plana diseinatuko dute. Horri lotuta, datu horiek alkoholaren “kontsumo arduratsua sustatzeko” balioko dutela uste dute arduradunek.



Seat enpresakoek IMH eta Meka lanbide eskolak bisitatu dituzte

Seat auto enpresak eta Generalitat-ek automozio zentro bat jarri nahi dute Katalunian, eta arduradunek IMH eta Meka lanbide eskolak bisitatu dituzte, proiektu berrirako baliagarri izango zaizkien ideiak hartzeko. Bisita “oso positiboa” izan zela jakinarazi dute Mekako arduradunek, eta etorkizunera begira elkarlenerako bideak jarri dituzte mahai gainean.

Txistularien alardeak 200 musikari inguru batu zituen joan zen zapatuan

Eguraldiaren eraginez bertan behera geratu zen txistularien kalejira, eta kontzertua bera ere Kalegoen Plazatik San Bartolome parrokiara lekualdatu zuten musika eskolako arduradunek. 200 musikari inguru batu zituen txistularien alardeak: Mendaroko, Eibarko, Ermuko, Aretxabaletako, Arrasateko, Barakaldoko, Gasteizko eta Elgoibarko txistulariak, besteak beste. Horiekin batera, Elgoibarko Parrokiako abesbatzak, Soraluzeko musika eskolako eta Ezoziko Ama abesbatzak, Azkoitiko Iraurgi abesbatzak eta Aretxabaletako koruak ere hartu zuten parte kontzertuan. Haritz Euskal Dantzari Taldeko hainbat kidek ere hartu zuten parte ekitaldian, aurten 40 urte bete dituelareta, dantza taldea omendu nahi izan baitu Inazio Bereziartua musika eskolak. Herritar asko batu ziren ekitaldian eta parrokia bete egin zen.




Izenak **Maddi Mendibil eta Leire Melgosa**



Urruzuno literatur lehiaketa irabazi dute Maddi Mendibil eta Leire Melgosa elgoibartarrek. *Beranduegi, kabroia* izeneko ipuina aurkeztu zuen Mendibilek lehiaketara. Ipuinak idazteko teknikak landu dituzte Ikastolan, eta horietako bat aplikatuta osatu zuen ipuina. Lagun batek beste batekin izandako elkarrizketa kontatzen dio hirugarren bati. Melgosak *Ilargiaren melodia* jarri dio izena bere lanari. Institutuan literatur lan bat egin behar zuten, eta emaitzaren gustura geratu zela ikusita, lehiaketara aurkeztea erabaki zuen. Aurbixan beste idazle batzuekin egonaldia jasoko dute saritzat.

Izena **Guillermo Hijano**

Euskadiko 11. Olinpiada Matematikoa irabazi du Guillermo Hijanok, Elgoibarko institutuko DBHko 2. ikasturteko ikasleak. Bere anaia zaharragoak (Albertok) duela bi urte irabazi zuen txapelketa bera irabazi du, hain justu ere Guillermok. Ekainean Espainiako txapelketan hartuko du parte, Andorran.



Argazkia **Herrira**



Presoen eskubideen alde plazak betetzeko deia egin zuen Herrirak joan zen zapaturako, eta euria egin arren, hainbat elgoibartarrek egin zuten bat deialdiarekin. Kalebarren plazan atera zuten erretratua. Ondoren, Lekuederren bazkadi zuten, eta jai giroan eman zuten arratsaldea.

Etxe kaleratzei buruzko informazio mahaia domekan

Etxe kaleratzeen kontrako taldeak informazio mahaia jarriko du domekan, Merkatu Plaza aurrean. 10:30etik eguerdira arte egongo dira. Taldearekin harremanetan jarri nahi duenak 627 934 675 telefonora deitu dezake.

Kontsumo azoka, Mendaron

Kontsumo azoka egingo dute Mendaroko frontoian maiatzaren 31n, eta 4tik 12 urtera arteko umeentzako hainbat ekintzat eta jolas prestatu dituzte antolatzaileek. Zankoak, makillaje txokoa, paperezko hegazkinen lehiaketa eta papiroflexia tailerak izango dituzte, besteak beste. 17:30ean hasiko da ekitaldia.

Pirritx eta Porrotx pailazoaren emanaldirako sarrerak agurtu dira

Ekainaren 7rako Pirritx eta Porrotx pailazoaren emanaldia antolatu dute Mendaron, eta antolatzaileek jakinarazi dutenez, sarrerak agurtu dira dagoeneko.

Uztailerako eskaintza berria prestatu du Atxutxiamaikak

Udaleku itxiak antolatu zituen Atxutxiamaikak LH3-6ko umeentzako, baina hainbat arrazoi tarteko bertan behera utzi dituzte udalekuak. Horregatik, Atxutxiamaikak goiz eta arratsalde-pasak eta pare bat eguneko egonaldi motzak antolatu ditu. Izena emateko www.elgoibarkoizarra.com webgunean egin daiteke klik, edo Elgoibarko Izararren Ubitarteko bulegora bertara joan daiteke, ekainaren 7a bitartean. Edozein zalantza izanez gero, idatzi atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com helbidera edo deitu 943 741 626 zenbakira.

SAN LAZAROKO LANGILEAK ARGI ESKE



Urak nahasi datoz azkenaldi honetan Gipuzkoako adinekoen zentroetan. Bost eguneko greba egin zuten apirilaren hondarretan, eta protestak eraginik izan ez zuten egoitzetan, mugarik gabeko lanuztea hasi zuten gero, maiatzaren 13an. Elgoibarren ere deialdi harekin bat egin zuten. “Hitzarmen duina” eta Espainiako Gobernuaren erreformak Gipuzkoako adinekoen zentroetan eraginik ez izatea eskatzen zuten oinarrian. Egunak joan dira lehenengo protesta haie-tatik, eta ostiralean oinarritzko akordioa si-natuta, urak bere onera etorri dira eguneko zentroan; ez, ordea, San Lazaro egoitzan.

Ainara Argoitia

Kanpin denda, berokiak, eta doze-na bat aulki hartu eta Maalako kioskoan kanpaldia hasi zuten astelehenean San Lazaro egoitzako langileek. Haserre daude, eta enpresa-rekin hitzarmena sinatu arte, protestan jarraituko dutela ohartarazi dute. “Ez dugu amore emango”, adierazi du Elena Garciak, San Lazaro egoitzako langileen izenean. Bi urte daramatxate soldatak izoztuta, eta ez dute uler-tzen zergatik euren enpresak [Samsic] ez duen sinatzen langile gehiago dituzten en-presek onartu duten akordioa.

Zaharren egoitzetako langileei Espainia-ko lan erreforma aplikatu nahi diete, eta ho-rrek uztailetik aurrera hileko soldatan jaitiera ekarriko lieke, eta gainera, urtean ordu gehia-goiz aritu beharko lukete lanean. Horregatik, uztailearen 7a aurretik berri nahi dituzte hi-tzarmenak. Horren aurrean, langileen orde-zkariak eta Adegik patronalak negoziazio mahai bat sortu zuten iazko urrian hitzarmenak be-rritzeko, baina ez du emaitzarik eman, eta

ondorioz, enpresaz enpresa hasi ziren sindi-ka-tuak, akordioak hitzartzen. Hiru ziren, ELA-ren esanetan, langileen eskakizunak: hobe-kuntza klasikoak, Espainiako Gobernuaren erreformak eraginik ez izatea Gipuzkoan eta sinatzen duten akordioa “blindatuta” egotea.

Eta blokeo egoera horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak akordio bat izenpetu du ELA eta LABekin. 8,2 milioi euroko eskaintza egin du datozen bi urteetarako, hitzarmenean ja-sotako langileen soldatak eta baldintzak ber-matzeko, baina patronalak ez du onartu. Adegik uko egin dio, uste duelako diru hori ez dela hitzarmenean jasotako guztia bete-tzeko nahikoa, eta are, Aldundiaren kontra egin du, uste duelako Aldundiak ez duela ahalmenik “zer sinatu behar den esateko”. “Diputazioa ez da arazoaren parteetako bat. Bitartekaria izan daiteke, baina ez gehiago”, ohartarazi zuen joan zen astean Jesus Go-mez Montoya Gipuzkoako Gerontologia Zentroen Elkarteko presidenteak prentsau-rrekoan.

Elgoibarko Udalera, kontu eske

Eta egoera horretan, ez atzera ez aurre-ra daude San Lazaro egoitzako langileak. El-goibarko adinekoen egoitza Udal egoitza da, gaur egun, Samsic enpresa pribatuak kude-atzen du, esleipen bidez, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak zehazten ditu San Lazaro egoitzak eman beharreko zerbitzuak. Egoi-tzak dituen beharrak aztertu eta horien ara-bera, diru jakin bat bideratzen du Elgoibarko Udalera, “%100ean San Lazarorako”.

Horregatik uste dute langileek Elgoibarko Udalak ere “zeresan handia” duela gai hone-tan, eta horregatik jo dute Alfredo Etxeberria alkatearengana. “Faborea” eskatu zioten Etxeberriari joan zen martitzenean egin zuten batzarrean, ELAko Amagoia Lasagabaste-rren esanetan: “Enpresarekin zuzeneko ha-rremana daukanez, alkatearengana joan gi-nen, ez bitartekari lana egitera eskatzera, bai-na bai, langileentzako fabore bat egin zeza-keen galdetzera. Eskatu genion enpresari galdetzeko zergatik ez duen hitzarmena si-

natzen, eta hitzarmen hori bidezkoa dela ikusten badu, eta guk hala dela uste dugu, enpresari hitzarmen hori sinatzea eskatze-ko". Eta ez daude konforme udaletxean jaso duten erantzunarekin.

Udala ere ez dator bat langileek eta haien ordezkariak erabilitako zenbait argumentazioarekin. Alkateak esan du "ELAK eskatu bezala" enpresarekin hizketan ari direla, aztertzeko enpresak ea zenbateko "esfortzua" hartu dezakeen bere gain, baina bitartekari paperean jarrita eta irtenbide bat bilatu aldera, derrigortuta daudela langileekin gauza bera egitera. "Dena edo ezer ez mezuak ez du balio. Konponbidera iristeko, bi aldeak egon behar dira bidean zerbait uzteko prest, zerbaiti uko egiteko prest", nabarmendu du.

Etxeberriak dio patronalak, eta kasu honetan, Samsic enpresak argi laga dutela Diputazioak bi urterako agindutako dirua ez dela aski lan hitzarmenean jasotakoa betetzeko, eta esan du Udalak ez duela euro bakar bat jarriko auzia konpontzeko, bidezkoa ikusten ez duelako. "Diputazioak hitzarmen bat proposatu du eta diru kopuru bat agindu hitzarmen horren kostua ordaindu ahal izateko. Diru horrekin iristen bada, zergatik ari da ELA Udalekin negoziatzen patronalarekin negoziatu beharrean? Kontraesana dago hor. Udalei falta den diru hori jartzeko eskatzen bazaie, Diputazioak onartu behar du berak jarritakoa ez dela nahikoa. Guk ezin dugu kontraesan hori onartu". Bere esanetan, udal batzuek hori onartu dutelako dute orain zahar egoitza batzuek duten zorra [Udalak emandako datuen arabera, 9.000.000 euroko zorra urtean] eta zor hori da, bere hitzetan, udalen jabetzako zahar egoitzak Diputazioaren titulartasunera igartzeko traba nagusia [2014an berez, Diputazioaren esku gelditu beharko liriteke, baina horretarako baldintza bat jartzen du Foru Aldundiak: zorrak ez izatea. San Lazaro egoitzak ez dauka].

Enpresaren mozkin-marjina

ELAn ulertzen dute, hein batean, Elgoibarko Udalaren kezka, baina hori politika kontua dela arrazoitzen dute. "Guk badakigu zaharren egoitzak beti izan direla defizitarioak eta zerbitzu publiko asko direla defizitarioak, baina irabazirik ematen ez dutelako zerbitzu horiek emateari laga behar zaio? Zaharren egoitzak ez dira negozio bat, eta izatekotan ez behintzat langileentzat, hemengo langile-



Inazio Barrenetxea egoiliarak dio grebaren eragina nabarmena dela

ek bi urte daramatzatelako euren soldatak izoztuta. Samsic-i ez zaizkio zenbakiak ateratzen, baina jakin beharko genuke zein mozkin-marjin duten ere, beste enpresa batzuk lehenengoan onartu dutelako hitzarmen hau", dio Lasagabasterrek. Bizitzen enpresa aipatu dute, Elgoibarko eguneko zentroa kudeatzen duena, eta horri buruz galdetuta, honako zehaztapena eman du Alfredo Etxeberriak. "Bata, Samsic enpresa pribatua da, eta bestea, Bizitzen, fundazioa".

LABek ere egin du bere balorazioa. Foru Aldundia txalotu du, "langileen soldatei KPIa igo ahal izateko zortzi milioi euro jarri dituelako eta lan erreformaren aplikazioa ekidin duelako". LABek dio Aldundiak "apustu garbia" egin duela langileen interesen eta zerbitzuaren kalitatearen alde. Bestetik, alkatearen jarrera salatu du. Langileen artean "nahasmena" sortu eta errua Bilduri egotzi izana leporatzen dio. "Patronalaren negoziatio baino ez du ikusten", salatu du.

Langileak, aspertuta

Haserre mintzo da Begoña Gainza San

Lazaro egoitzako langilea ere. "Bilduren udal-letan lehenengoan onartu dute, eta hemen zer gertatzen da? Eskualdean, Mutrikukoak, gu eta Clece enpresakoak falta gara akordioa sinatzeko. Eta gero Samsic enpresako hamalau langile Oñatin. Ez da justua. Hitzarmena onartu duten herrietan alkateek berebiziko papera bete dute, gogor presionatu dute. Elgoibarkoa ez dago, baina, konbentzitu eta uste dugu bera ari dela negoziatzea atzera botatzen. Bera da hemengo presidentea eta ez da garbi jokatzeko ari". Langileek salatzen dute "luzamendutan" ari zaizkiela Udala zein enpresa eta nazkatuta daudela aitortu dute. [Enpresak Elgoibarren daukan ordezkariak ez dio BARRENI adierazpenik egin nahi izan, eta Donostiako arduradunek ez di-gute erantzun].

Egoiarekin gogaituta daude, era berean, San Lazaro egoiliarak ere. Inazio Barrenetxeak 80 urte ditu eta lau urtean bizi da egoitzan. Azkeneko protestetan langileen ondoan ikusi dugu elkarretaratzeetan, eta aurrerantzean ere hala egingo duela aurreratu du. "Babesa erakutsi nahi diet. Atertzen badu gaur ere joango naiz plazara errekin". Greba luze doala dio, eta eragina nabarmena dela. "Platerak, tenedoreak, goilarak denak plastikozkoak dira, eta gauetan bigarren platerik ez dugu izaten. Garbitasunean ere igartzen da horren falta", dio Maalako kioskoan kanpaldian dauden langileei begira. "Hamabost egun daramatzat dutxarik hartu gabe".

IRATXE RETOLAZA

EHUko IRAKASLEA

‘Zer da euskal feminismoa? izenburuko hitzaldia eskaini zuen joan zen astean Elgoibarren Iratxe Retolaza (Donostia, 1977) EHUko irakasle eta literatur kritikariak. Hitzaldi aurretik idatziz egindako elkarrizketa duzue hau.



“Pentsamendua eraikitzeke eskumena aitortu behar zaie emakumeei”

‘Zer da euskal feminismoa?’ Desberdina da euskal feminista izatea edo beste edonongo feminista izatea?

Euskal feminista izatea zer den ulertzeko modu asko eta ikuspegi asko daude (kultura, herritartasuna, tradizio feminista...) eta zure galderari kasu eginda, herritartasunari begirako ikuspegiak galdetzen dizula iruditu zait. Argi dago, edozein ikuspegi feministak (eta edozein ekintza feminista) unean uneko eta lekuan lekuko egoerari erantzun behar diola, izan ere, kultura bakoitzak eta herritartasun bakoitzak genero-irudikapen eta genero-rol zehatz zenbait eraikitzen ditu, eta horiei aurre egiteko, horiek auzitan jartzeko, beharrezkoa da nor bere komunitatetik garatzea diskurtso feministak (eta nork bere komunitatea eraldatzeko asmoz). Jakina, ikuspegi internazionalista ere beharrezko du feminismoak, eta beste komunitate batzuetan ekarpenak ere kontuan hartu behar dira, eta elkarlanean aritu.

‘Sexu makina baino gehiago da, emakumea gizakia da’ dio kantak. Emakumeen alde

egin nahi hori beti da ondo etorria? Feminizatzen ditugun mugimendu edo ekintza batzuk ez al dira feminismoaren beraren etsai? Ekintza batek, mugimendu batek edo ekarpen batek feminista izateko, nahitaez subjektu politiko feminista bat(zu)en aldarrikapena ekarri behar du, alegia, komunitate feminist(ar)en subjektu politiko horren/horien irudikatzea ekarri behar du. Eta alde horretatik, genero-eraikuntzak ezarritako botere-harremanak iraultzea izan beharko luke helburu. Batzuetan, emakumeaz aritzea, edo emakumearen presentzia aldarrikatzea ulertu da feminismoztat, baina emakumeei presentzia eskaintzeaz gain, ahotsa eman behar zaie, eta batez ere pentsamendua eraikitzeke eskumena aitortu, eta logika sozialak eraldatzeko/eraikitzeke eskumena aitortu. Sarritan, emakumeek posizio publikoak hartzen dituzte, baina ez zaie uzten egitura publiko horiek auzitan jartzen, ez eta erabakigunee-tan parte hartzen. Are gehiago, batzuetan, emakumeen presentzia publikoa emakume eredu zehatz bat hedatzeko bidea da, hain

zuzen ere, emakume irudia hedatuz, eta ez subjektu emakumea.

Euskal feminismoa ulertzeko modu bakarra al dago?

Feminismoak daudela esan ohi da, geroz eta ozenago, eta zentzu horretan, ezin esan ere geurean aurpegi bakarrek feminismoa denik, ezta hala behar duenik ere. Batetik, feminismoaren korronteen aniztetasun kokaturiko talde feministak daude egun Euskal Herrian; eta bestetik, ‘euskal feminismoa’ ere ulertzeko bi modu orokor egon daitezke, gutxiengutxiengutxi: batak, euskaldunon komunitatean artikulaturiko feminismoa(k); eta besteak, euskal herritarren komunitatean artikulaturiko feminismoa(k). Jakina, bi ikuspegi horietan sortzen diren kezkek zenbaitetan antzekoak dira, baina beste alderdi zenbaitetan ez. Hitzaldian, garrantzi berezia emango diot hizkuntzari, azken batean, hiztun komunitatearen eta komunitate feministaren arteko harremana joan-etorrikoa baita: batetik, hizkuntzak egituratzen du edozein pentsamendu feminista; eta

bestetik, hizkuntzaren eta hiztunen inguruko diskurtso guztiak genero-ikuspegi bat zeharkatzen dute, eta genero-irudiak sortzen.

Feminismoaren borroka nola ezkontzen da beste borrokekin? Zertan egiten dute talka?

Gizarte-mugimendu zenbait, eta borroka-eremu zenbait elkarren ondoan jartzean, analogiaz aipatzeko ohitura dago, elkarrengandik zer ikas dezakegun adierazteko-edo. Baina, argi izan behar dugu, batez ere genero-identitateaz, kultura-identitateaz eta herritartasunaz ari garenean (eta horien inguruko borrokez eta aldarrikapenez ari garela), ezinezkoa dela esparru horien arteko muga zehatzik bereiztea, nahiz eta praktikan egiten den. Izan ere, herritartasunaren inguruko edozein diskurtsok edo kulturaren ingurukoek genero-irudikapenak sortzen dituzte; eta era berean, genero-identitatearen inguruko edozein diskurtsok kulturaren eta herritartasunaren inguruko irudiak sortzen dituzte. Beraz, elkar elikatzen dute, eta horregatik komenigarria da zehar-lerro izatea, izan ere, identitate-kategoriak (genero-identitatea, kultura-identitatea...) esparru zenbaiten arteko bidegurutzean eraikitzen dira. Bide-gurutze horietan jarri behar dira auzitan.

Azken mendeko iraultza garrantzitsuenetako izango zen, beharbada, feminismoa, baina aitortu zaio egindako lana?

Feminismoaren barruan, jakina, aitortu zaio egindako lana, eta feministok jakin badakigu zenbat lan egin den (eta zenbat neke!) guk gaur egun ditugun eskubide batzuk lortzeko, nola ez! Baina, gizarteko eremu guztietan ez zaio lan hori neurri berean aitortu. Irakasuntzako egitarauak, gidak eta irakasmaterialak gainbegiratzea baino ez dago, oraindik ere geure imaginario kolektiboaren barruan feminismoaren ekarpenak eskas direla ikusteko.

Hala ere, feminismoa berbak erreparatzen ditu oraindik, eta are gehiago euskal feminismoa terminoak. Feminismoaren aldarien alabak izan arren, neska gazte askok ez dute haien burua feministatzat. Zergatik?

Kasuak kasu, baina, neure inguruko jendearen bizipenei erreparatuta, badirudi kontzientzia feminista gero eta beranduago garatu ohi dutela hainbat emakumek, ez nerabezaroen edo hogeitaz urteren bueltan, baizik eta hogeitaz urtearen bueltan. Alegia, badirudi irakasle garaian, edo gaztaroen ez dutela batzuek hain argi identifikatzen matxismoa (nahiz eta eremu horietan matxismoa oso

oso presente egon), baina, lan-eremuan edo familia-egituretan, aldiz, matxismoa askoz argiago antzematen dutela.

Idazle, musikari, artista, presidente... dena delakoaren gainetik, "emakume" etiketa nabarmentzen da sarri. Markatu beharra dago oraindik? Ez al da pisutsu egiten?

Etiketaren kontu hori testuinguruak eta erabilerak erabaki behar du. Batzuetan izan liteke estrategia beharrezkoa, ikusezin egin dena, edo isilarazi dena ikusgarri egiteko (baina, betiere "emakume" talde horren barruan ekarpen pertsonalak, estetika pertsonalak, jardute pertsonalak daudela azpimarratuz); eta besteetan, pertsona horien ekarpenak orokortzeko bide bat izan daiteke, bide pertsonala eta nortasun pertsonala ikusezino eginez. Hortaz, sinbolo huts bihurtuz.

"Euskalduntasunaren irudia berritzen lagun dezake feminismoak"

Kulturaren, eta zehazki literaturan, emakumeak ikusezin direla edo gutxienez haien presentzia urria dela salatu izan duzue. Gizonezkoen obra "unibertsaltzat" hartzen dela, eta aldiz, emakumeek egindakoari "emakume literatura" edo "literatura femenino" deitzen diotela. Zer dago horren atzean?

Aipatu dudana bezala, etiketak batzuetan nortasun pertsonalak eta ekarpen pertsonalak ikusezin egiteko bide bat izan daitezke, estetika oso-oso bestelakoak pareko eginez, esate baterako. Modu horretara, badirudi egiazko literatura dagoela, etiketarik gabea, eta bigarren mailako literatura dagoela, etiketa duena, eta une oro bere burua justifikatu behar duena. Ezin da ahaztu, literarioa zer den gizarte-hitzarmen baten ondorio dela, eta aldiaren aldiko irizpide literarioak ere literaturako eragileen hitzarmenaren ondorioa direla. Jakina, alderdi sozialek eragin handia dute hitzarmen horretan, beraz, baita genero-identitateari dagozkion alderdiek ere.

Zer neurritaraino izan dira emakumeak hitzarmen sozial horretan subjektu aktibo ere?

Horixe dugu koska. Sortzaileak izateaz gain, gizarte-eragile ere izan behar dute, eta pentsamenduan eragin.

Izan daiteke kritikoa feminismoaren pedagogiarekin, feminista izateari laga gabe?

Jakina, edozein pentsamendurekin edo korronterekin izan gaitzake kritiko, pentsamendu edo korronte horren barruan zeure burua kokatuz. Are gehiago, beharbada jarrera kritiko hori duzu, hain zuzen ere, pentsamendu horretan sakontzeko premia sentitzen duzulako. Edozein pentsamenduk beharrezkoa du ikuspegi kritiko hori, une oro, bai jardunarekin, bai diskurtsoarekin.

Elgoibar euskaldunago egiteko ahaleginean 50 urte bete dituen elkarteak da gurea. Euskararen arloan zertan lagundu dezake feminismoak?

Feminismoak ekarpen ugari egin ditzake euskalgintzan. Batetik, euskalduntasunaren irudia berritzen lagun dezake, eta zentzu horretan, jende gehiago hurbiltzea ere ekar dezake. Gogoan dut *Desira desordenatuak* liburuaren aurkezpenetan bizi izandakoa. Liburu horretan euskal literaturan homosexualitateak izan zuen lekua aztertzen zen. Liburuaren aurkezpenetan hainbat kide hurbildu zitzaizkigun, zeharo harriturik, ez zutelako euskal literaturak halako gaiak jorratuko zituenik pentsatzen, eta nolabait, liburuak hurbiltze hori ahalbideratu zuen. Bestetik, ezinbestean, euskalgintzak ekimen bat, bilera bat, diskurtso bat... sortzen duenean, genero-irudikapenak eta genero-rolak eraikitzen ditu. Hortaz, zentzuzkoa dirudi, gaur egun legeak ere genero-ikuspegiak zehar-lerro izan behar duela dienean, ikuspegi feminista bat abian jartzea, euskararen inguruko praktika horiek guztiak nola bideratuko diren aztertze-ko/adosteko.

Jabekuntza terminoak (empoderamiento, empowerment) lotura zuzena egiten du boterearekin eta azkura sortzen die askori. Boterearen zein adierarekin lotzen duzu zuk?

Burujabetzarekin harremanetan ikusten dut, izan ere, nor bere buruaren/pentsamenduen/ekintzen jabe egiteko bidea da jabekuntza, eta hartara, ez dago besteengan boterea praktikatzeari loturik –alegia, ez du helburu besteak mendeko hartzea, nor bere bidea egiteko behar dituen tresnak eskuratzeari begira dago–.

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92
ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



GOBIERNO NABARRA



MENDAKOND UDALAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GUTUNAK

Eskerrik asko!

Orain dela hilabete Euskadiko Txapelketa jokatuta genuen eta ondoren Zilarrezko Ohorezko mailara igotzeko txartela izan genuen jokoan Olai-zagan. Zorionez, amaiera ezinhobea izan da, eta gure helburua bete dugul! DUGU honetan ez gara Tecnifuelle taldekoak bakarrik sartzen; igoera hau denona da! Sanlo E.K.T. gure klubarena da bate-tik, bi txapelketak etxean jokatzeke oparia egin di-gutelako eta lan bikaina egin dutelako hauek antolatzen.

Bestetik, babesle guztiek ere hartu dute parte igoera honetan; haien laguntzari esker ere iritsi ga-rra honaino. Eta noski, zilarrezko domina urte guz-tian zehar Olaizagara gerturatu zareten zaletu guztiena da ere bada! Eskerrik asko zuen babes-gatik eta harmailak leporaino betetzeagatik!! Kirol-degian horrela jokatzea oso berezia izan da de-nontzat, eta ez dugu inoiz ahaztuko!

Igoera hau ez da urte honetako lanaren saria bakarrik izan. Jokalari eta entrenatzaile ugari pasa dira azken urteotan senior nesken taldetik eta be-raiek hasitako bideari jarraitu diogu guk! Beraz, zorianak zuei ere *viejas glorias*!

Amaitzeko, ezin aipatu gabe utzi Juan Luis, Inma eta Toñi (eskerrik asko txanpain eta garagar-do danagaitik, indarrak berritzen laguntzeko balio izan digute!), Jenoa, Aitor, Nicolas, Ion, Ivan, Leire, Leniz...

Tecnifuelleko neskak ☺

Euskal Herriak bakea behar du

Euskal Herrian urte luzez eta bide desberdi-nez, herritarrek bakearen nahia azaleratu dute. Azken bi urteetan pauso garrantzitsuak ezagutu ditugu bakea lortze bidean eta konponbidearen mesedetan adostasun zabalak eratu dira. Jendar-teak bere atxikimendua agertu dio konponbide prozesuari, baina Espainiak eta Frantziak egoera politiko berrian ez dute aurrerapausorik eman eta aurreko egoerari lotutako erantzunak ematen ari dira. Jendearen bake itzaropena zapuztu nahi du-te. Ezin diegu utzi.

Azken egunetako atxiloketak eta espetxe po-litika bera dira honen adibide garbia eta bake bi-dean horrelako jokabideak alboratzea beharrez-koa da. Kartzelak husteko garaia da, ez betetze-koa eta horregatik ere egin genuen bat zapatura-ko Herrirak deituriko ekimenekin. Aurrerantzean ere, bizi dugun aukera zapuztu ez dezaten, lane-an jarraituko dugu.

EHBildu Elgoibar ☺

30ean denok Grebara! 25ean Donostiara!

Greba orokorra egiteko motibo asko ditugu. Langileriaren egoera okerrera doa egunegun: gero eta langabetu gehiago, diru-sarrerarik gabe dagoen jende kopurua gora doa, etxea galtzeko arriskuan daude gero eta familia gehiago... Lar-rialdi egoerara ekarri gaituzte eta altxatu beharra daukagu "nahikoa da" ozen oihukatzeke. Madri-len, Iruñean eta Gasteizen egiten diren politiken helburua herritarrek pobretzea eta eskubiderik gabe uztea da, betikoak aberasten jarraitzeke. Azken erreformak mahai gainean jartzen zituzten bitartean, lotsarik gabe BBVak bere irabazien be-ri eman zuen: 1734 milioi euro lehen 3 hilabete-tan, iaz baino %72 gehiago. Euskal Herriko insti-tuzioei presioa egin behar diegu euren politiken norabidea alda dezaten eta horretarako ezinbes-tekoea da mobilizazioa. Baina urrunago joan beha-rra dugu: beste eredu bat posible dela aldarrika-tzetik eredu hori eraikitzea goaz, eta lehenengo pausoa Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna izango da. Beraz, greba orokor hau Euskal Herria-rentzako eredu ekonomiko eta sozial propioa erai-kitzeko bultzada izango da, eskubide sozial eta la-boralen errespetuan eta justizia sozialean oinarri-turiko eredu, gehiengo sozial langilearen parte-hartzearekin eraikia eta ez elite ekonomikoak era-bakia. Herritar guztiak deitu nahi ditugu 30ean greba egitera eta larunbat honetan Donostian *Es-kubide Sozialen Gutunaren alde, Maiatzaren 30ean Greba Orokorra* lemapean egingo den ma-nifestazioan parte hartzera.

GAIZKA ZURIARRAIN ARKARAZO

Greba Batzordearen izenean ☺

OHARRAK

Joan zen asteko alean Sanloko Tecnifuelle taldekoen eta Bilduren eskutitzak nahastu-ta argitaratu genituen. Aste honetan biak ditu-zue irakurtzeko moduan. Barkatu okerrak.

Edizioa itxeko unean erabaki gabe ge-nuen oraindik Elgoibarko Izarrako langileek maiatzaren 30eko greba deialdiarekin bat egingo genuen ala ez, baina badaezpada, da-torren alean sartzeko informazio guztia marti-tzen eguerdirako bidaltzeko eskatu nahi di-zuegu. Eskerrik asko.

Trinitate jaiak



Iritsi dira Trinitate jaiak, eta urtero bezala, egitarau zabala izango dugu asteburuan. Ume, zahar zein gaztek izango dute non aukeratu eta gozatu! Bakoitzak bere une eta gunea izango du, eta danbor hotsen artean gainera, Elgoibarko Izarrari egingo diote tarte bat. Elkarteak 50 urte egin ditu aurten, eta Atabal elkarteak omenaldia egingo dio Nagusien Danborrada hasi eta bat. Elgoibar zein Mendaroko jaien egitarau osoa agendan ikus dezakezue.

AZOKA BEREZIA, ZAPATUAN

Landa giroak hartuko du zapatu goiza Elgoibarren. Debemen elkarteak Trinitate jaietako azoka berezia antolatu du, eta herritarrek Elgoibarko baserrietako produktuak dastatu eta erosteko aukera izango dute. Sasoian sasoiko elikagaiak ekarriko dituzte baserritarrek kalera: ogia, gazta, barazkiak, arrautzak... Hauek izango dira azokan parte hartuko duten baserritarrak:

- **BARAZKIGILEAK:** Txillarre, Zabaleta, Lizundia Txabola, Basueta, Eguen Txiki, Miriam Onaindia.
- **GAZTAGILEAK:** Mausitxa, Lizundia Txabola, Mintxeta.

Sabela betetzeko aukera ere egongo da azokan: Idotorbe, Aïastia, Azkue, Urruzuno, Sallobente, Arriaga eta Maalako auzotarrek Kalitatezko produktuak eskainiko dituzte-eta 11:00etatik aurrera, Lekuederren. Oilasko lumagorria eta libre hazitako txerri sahieski eta hirugihar razioak salduko dituzte bi eurotan.

OMENALDIA

12:30ean omenaldia egingo diete Ramon Larrañaga *Aldapa* eta Jabier Arrizabalaga *Belarretari* Kalegoen plazan, urteetan auzo-alkate izan direlako eta Elgoibarko Nekazaritza eta baserritarren alde eginiko lanagatik. Horren ostean, herri kirolen txanda izango da.

Era berean, Elgoibarko baserrietan hazitako animaliak jarriko dituzte ikusgai Aita Agirre plazan. Arraza desberdinetako 110 bat buru ikusteko aukera izango dute azokara batzen direnek. Ondorengo baserrietako animaliak izango dira protagonista:

- **ARISTI TXIKI:** Pirenaika
- **GARATE:** Pirenaika
- **IRIARTE:** Pirenaika
- **BERDEZKUNDE:** Pirenaika
- **ZIARDA TXIKI:** Zulueta BekuaLimusina
- **ORUBE:** Limusina eta suiza
- **ZIARDA:** Limusinak
- **AGERRE:** Katxinak
- **AOZAR-ARMAITXA:** Mestizoak, txerriak
- **ZULUETA BEKUA:** Blonda
- **IRUNASO:** Betizuak eta terreñak
- **ARTAZO:** Idiak
- **AKE:** Enkarterrietako astoak
- **EGI:** Astoak
- **ARTAZO:** Burgeteak
- **ALDAZELAI:** Burgeteak
- **TXILLARRE:** Montako zaldiak
- **IRUNASO:** Poniak, pottokak,, ahuntz azpi gorriak, sasi ardiak
- **IRUNABERRI:** Pottokak
- **MAUSITXA:** Ardi mutur beltza
- **SAGARRAGA:** Ardi mutur gorria
- **AZKARATE:** Ardiak berrichon
- **IRIARTE:** Ahuntz enanoak
- **URRUZUNO:** Hegaztiak



Herri kirol saioa, bihar

Punta-puntako herri kirol saioa antolatu dute Elgoibarren biharko. Juan Jose Unanue Goenatxo harri jasotzailea ibili da antolakuntza lanetan, eta izen handiko herri kirolariak batu ditu bihar 12:00tarako (Kalegoen plaza). Floren Nazabal leitzarra eta Jose Mari Olasagasti igeldoarra ariko dira aizkoran, Aimar Irigoien errezildarra eta Goenatxo bera harri jasotzen, eta Jon Larrañaga mendaroarra eta Eneritz Kaltzakorta aizarnazabaldarra tron-tzan. Harri jasotzen, 150 kiloko harri zilindroarekin hainbat altxaldi egingo ditu Irigoienek eta 200 kiloko harri errektangularrarekin jardungo du Goenatxok. Ondoren, ariketa mistoan ere jarriko dira aizkolariak eta ha-

rri jasotzaileak. Bi talde egin eta elkarrekin lehian ariko dira. Aizkolariak enbor bat ebagitzean bere lagunak lau altxaldi egin beharko ditu 113 kilo harri kubikoarekin, eta horrela, bost aldiz, guztira hogeita altxaldi egin arte. Herri kirol saio honetako lanik bereziena, beharbada, Jose Mari Esnaola zegamarrak egingo du, hala ere. Bost metroko altuerara igo eta soka batetik zintzilik, zinbulu-zanbulu dabilen enborra ebaki beharko du. Hemen, Hego Euskal Herrian, ez da oso ikusia ariketa hau, baina bai Iparraldean. "Sekua ikusi ez duenarentzat ikusgarria da benetan", aurreratu du Goenatxok. Hori bukatutakoan, enbor bat hartu eta aulki bat egin beharko du.



Juan Jose Unanue 'Goenatxo'

"Oraingo gazteen aldean sufritzera eginagoak gaude sasoi batekoak"

gaineko erradiografia bat egiteko beste urte badaramatzu hari-jasotzen. Zer etorkizun du hari-jasotzeak?

Ona. 17 urterekin hasi nintzen hari-jasotzen, eta 18rekin jokatu nuen lehenengo txapelketa. Plazak zenbatzeari aspaldi utzi nion. Mar-ka batzuk ere badituz. Nik neure izena fama-tzea ez dago ondo, baina hamaika urtean izan naiz Euskal Herriko txapeldun harri handiarekin, eta Igeldoko hariarekin [134 kiloko harria] hamabitan jantzi dut txapela. Nik uste dut ni txapelketetan ibili nintzenetik gauza batzuk aldatu direla, baina osasuntsu ikusten dut mundu hau. Izetak eskola sortu du Zaurutzen, eta mutil gazte batzuk badatoz, baina gazte jendea orain ez dago sakrifizio handiak egiteko prest. Hasten direnek, gainera, zaila dute plazak egiteko, izen handiagokoen bila joaten direlako antolatzaileak.

Zer esan nahi duzu?

Sakrifizio handia eskatzen du harri jasotzen ibiltzeak eta orain jendea ez dago horretarako prest. Bizitza kalitate ona nahi dute orain. Lehen, baserriko jendea-eta, ohituta zeuden kargatan ibiltzera. Orain, prestakuntza handiagoa edo espezializatuagoa izan dezakete, baina berezkoa, eguneroko lana, falta. An-

tzerako zerbait gertatzen da, konparazio batera, idi probetan. Lehen, edozein baserri-zeuden idiak. Goldan, garotan, belarretan... idiekin ibiltzen ziren lehen, eta gaur, berriz, denerako traktora erabiltzen dute. Sufritzera eginagoak gaude sasoi batekoak.

Apustuak ez ezik erakustaldiak ere nabarmen jaitsi direla irakurri dugu. Zuenera ere iritsi da krisia?

Nabarmen. 90eko hamarkadan erakustaldiak oraingo bateko lau egiten ziren, baina krisiak guri ere eragin digu, normala den bezala. Udaletxeetan dirurik ez dago, eta ez dute jaietako programa betetzeko baino gehiago egiten. Zerekin bete ere berdin zaie herri askotan, eta herri kiroletan babes hori gabe jai daukagu. Nik urte batzuk pasatu nituen urte barruan bi edo hiru marka egiten, eta badakizu zer den hori?. Azkoitin egin ditudanetan, Udalak frontoia debalde utzita ere, marka homologatu nahi banuen, dopinaren kontrako kontrolaren gastua neure gain hartu behar izaten nuen. Eta 500 euro da hori. Zapatu iluntzeko marka antolatu, sarrera egin, epaileak lotu, dopina egin, eta marka osteko afaria... norbere poltsikotik dirua jarri behar azkenerako!

Txapelketak lagata zaude, baina 54 urterekin, plazaz plaza jarraitzen duzu oraindik ere. Elgoibarren 200 kiloko hariarekin ariko zara. Txapelketak utzi aurreko prestakuntza berdina jarraitzen duzu?

Ez, ez. Baina, zaindu egiten naiz, plazara gu ikustera datorrenak merezi duelako errespetu hori. Hemendik uda aldera, ia astero-astero izaten dugu erakustaldiren bat, eta gogor entrenatu beharra dago. Jan normal egiten dut, hori bai, baina astean birritan entrena-tzen naiz, harriarekin. Orain 15-18 urte, astean behin bakarrik deskantzatzen nuen. Mendian ibiltzen nintzen asko, eta gimnasioan pisuak altxatzen ere bai. Orain, entrenamendu guztiak harriarekin egiten ditut.

17 urterekin hasi zinen hari jasotzen, eta dozenaka marka ontzea lortu duzu. Kirol honen

ELGOIBARKO IZARRAREN 50. URTEURRENA DANBOR HOTSEN ARTEAN

Aurten 50 urte egin dituela-eta, Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak omenduko du Trinitateetako Nagusien Danborrada antolatzen duen Atabal elkarteak. Aurten danborradan 220 lagun inguruk hartuko dute parte eta danbor hotzak 23:30ean hasiko dira Kalegoen plazan. Hasi eta berehala omenaldia egingo diete Elgoibarko Izarrako ordezkariari. Hala ere, danborradaren gai nagusia euskal kirolak izango dira. Berrikuntzen artean, danborradako agintarien aldaketa aipatu behar da: orain arte jeneralaren eta jeneralaren emaztearen rolak bete dituzten Begoña Arizmendik eta Antxon Bergarak agintari berriei utziko diete lekua.

Domeka goizean, berriz, umeen txanda izango da. Inazio Bereziartua musika eta dantzak antolatu du umeen danborrada. 12:00etan hasiko da Kalegoen plazan, eta urtero bezala, karroza ikusgarriren baten konpainian egingo dute kalejira Elgoibarko umeek.

ARTISAUAK, DOMEKAN

Artisauak euren abileziak eta lanak erakutsiko dituzte domeka goizean. Le-kuederreko karpan artisau azoka jarriko dute, eta mota askotariko lanak ikusteko aukera izango da: bitxiak, buztinezko lanak, bonsaiak, egurrezko lanak, beiraz eginiko figurak, txotxongiloak... Guztira Euskal Herriko 30 artisauk hartuko dute parte, eta horien artean, ondorengo elgoibartarrak ere egongo dira:

- Susana Abad (Bitxiak)
- Irati Agirreazaldegia (Bitxiak)
- Jose Julian Marquez (Bonsaiak)
- Xabier Isasti (Egurrezko lanak)
- Zugehina (Ehunak)
- Xarlem Creations (Ehunak)
- Arturo Andrade (Luteria)
- Juani Vergel (Eskulanak)
- Jose Membrillera (Eskulanak)
- Mari Karmen Elortza (Kakorratz lanak)
- Emi Nogales (Margoak)

MENDARON ERE TRINITATEAK

Trinidad elizaren bueltan ospatuko dituzte Trinitateak Mendaron. Tradizio handiko jaiak dira Trinitateak Mendaron, eta adituen arabera, Elgoibarko jaiak ere han dute jatorria. Garai batean azoka Mendaron egiten dela diote historialariek, eta urteekin jai hori Elgoibarrera eraman omen zuten. Herritarrek eginitako jaiak dira Mendaroko Trinitateak, eta bereziki, Mendarozabal auzoko talde batek dauka jaien ardura. Musika, bertsoak eta herri kirolez gain, Bitoriano Loiola *Ospas* eta Sabin Longarte omenduko dituzte aurtengo jaietan. Domekan izango da omenaldia, meza nagusiaren ostean, eta Euskal Herri osoko trikitilariak hartuko dute parte. Besteak beste, Tapia eta Leturia, Aizpurutxu edo Elorza etorriko dira Mendarora.



MINTZA EGUNA

MINGAINAK DANTZAN

2013ko EKAINAREN 1ean, ELGOIBARREN



© kukuxumusu

EGITARUA

11:00:

Ongi etorria eta hamaiketako
Maalako parkean

12:00:

Ibilaldi gidatua

13:30:

Mintza kalejira, dultzaineroekin

14:30:

Bazkaria Maalako parkean

16:30:

Sari banaketa

17:30:

Erromeria MP5 taldearekin...
eta sorpresa gehiago!


BAZKARIA 20€. ESKURATU

TXARTELAK MAIATZAREN

24a BAINO LEHEN!

www.mintzapraktika.org

ANTOLATZAILEAK



BABESLEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia

LAGUNTZAILEAK



MINTZA EGUNA

EKAINAREN 1EAN ELGOIBARREN



Tertuliak egitasmoa hainbat kide izazko Mintza Egunean.

Mintzalagunen jaia ospatuko dute ekainaren 1ean Elgoibarren, Topaguneak eta Elgoibarko Izarrak antolatuta. Euskaraz hitz egiteko erraztasunak dituztenak eta euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituztenak batzen dituen egitasmoa da mintzapraktika. Urtetik urtera gehiago dira egitasmo honetan parte hartzen dutenak, eta une honetan, 5.500 lagun inguruk dihardute Euskal Herrian. Astean behin batzen dira talde txikietan bidelagun eta bidelariak, euskaraz hitz egiteko. Elgoibarren 29 lagun dabilza Elgoibarko Izarrak antolatutako Tertuliak programan, zazpi bidelagun eta 22 bidelari. Ibana Loiola da bidelagunetako bat. **BARRENEN** irakurri zuen Elgoibarko Izarrak euskaldun zaharrak behar zituela Tertuliak egitasmorako, eta izena ematea erabaki zuen. Lau urte pasatu dira ordutik. Egitasmo ona iruditzen zaio euskara praktikatu nahi dutenentzat, eta talde txikien formatoak lotsa alde batera lagatzen laguntzen duela uste du. Talde bakoitzean hiruzpalau lagun daude, eta astean ordubetz batzen dira euskaraz hitz egiteko. Edozein gairi buruz egiten dute berba, lagunarteko giroan. Lau urte hauetan bere taldekideei hobekuntza handiak nabari dizkiela adierazi du Ibana Loiolak. Zailtasunik handiena aditzekin eta Nor-nork forma bereizten dutela iruditzen zaio.

Bidelarien artean Manuel Zubiaurrerekin hitz egin du **BARRENEN**. Erretiroa hartu zuenean hasi zen euskara ikasten, orain dela urte eta erdi inguru. Elgoibarkoa izanik, euskara jakitea behar beharrezkoa iruditzen zitzaion, eta horregatik eman zuen euskaltegirako pausoa. Euskara ulertzeko ahalmena bazeukan arren, hitz egiteko zailtasunak zituen, eta horretan hobetu nahi zuen bereziki. Hala ere, hitz egiten hasi aurretik oinarritzko gramatika ezagutzak ere behar zituela konturatu zen, eta euskaltegian eman zuen izena. Oso gustura dabilela aitortu du, eta urtebetean aurrerapausu handiak igarri dituela adierazi du. Ikasturte honetan Elgoibarko Izarraren Tertuliak egitasmoan eman du izena, eta horri esker ahozkoan nabarmen egin du aurrera. Futbola, eguraldia edota telebistan ageri den edozein gairi buruz hitz egiten dute, eta saioetan oso gustura egon omen da. Euskaraz mintzatu da kazetariarekin, eta pozik agertu da, elkarrizketa euskaraz egiteko gai izan delako. Euskara ikasteak ahalegin bat eskatzen duela dio, baina dudarik gabe, merezi duen ahalegina dela uste du.

AMAIA LASAGABASTER,
Tertuliak egitasmoa arduraduna



Zer da Mintza Eguna?

Mintzalagunen jaia da Mintza Eguna. Euskara Elkartearen Topaguneak antolatzen du 2006tik, mintzapraktika egitasmoan parte hartzen duten lagunek elkar-ezagutu eta esperientziak partekatzeko. Ikasturte amaierako jai bat da, nolabait egitasmo honek daukan dimentsioa erakusteko balio duena. Euskal Herrian 5.500 lagun inguru dabilza egitasmo honen buelta eta gero eta indar handiago hartzen dihardu.

Nolatan aurten Elgoibarren?

Elgoibarko Izarrak 50 urte egin ditu aurten, eta elkartearen 50. urteurrena aitzakia polita iruditu zitzaigun Mintza Eguna Elgoibarren antolatzeko. Lehenengo aldiz Iruñean antolatu zuten jaia, eta urtetik urtera tokiz aldatzen dute. Iaz Bizkaian egin zuten, orain dela bi urte Nafarroan, eta aurten begi onez ikusi dute Elgoibarren egitea. Udalak ere laguntza handia eskaini digu: urteurrenako programazioaren barruan diru-laguntza eskaini du Mintza Egunerako eta azpiegitura aldetik ere behar genuen guztia eskaini digu. Udalarik eskerrak eman nahi dizkiogu eskaini digun babesagatik.

Elgoibarko Izarra noiz hasi zen mintzapraktika egitasmoarekin?

Hasieran *Arigera* proiektua jarri zuten martxan elkarrekin, herriko euskaltegiekin elkarlanean. Euskara ikasleei euskaraz praktikatzeko gune eta aukera berriak eskaintzeko asmoz sortu zen proiektu hura. Egitasmo hura bukatu zenean, *Tertuliak* egitasmoari eutsi genion. Euskararen erabileran hobetu nahi duen ororentzako egitasmoa da, eta ez soilik euskaltegitako ikasleentzat. Euskaldun zaharrak izan arren euskararen erabilera hobetzeko asmoz ere etortzen da jendea.

Une honetan zenbat jendek dihardu egitasmoan parte hartzen?

29 lagun ditugu: 22 bidelari eta zazpi bidelagun. Euskaldun zahar eta euskaldun berri kontzeptuak nahastu egin dira, eta euskaldun berriren batek euskaldun zahar papera betetzen du egun. Astean behin elkartzen dira talde txikietan, ordubetz euskaraz hitz egiteko.

Tertuliak egitasmoan parte hartzeko zer egin behar da?

Urritik ekainera irauten du egitasmoak, beraz, iraila inguruan Elgoibarko Izarrara edo euskaltegitara jotzea nahikoa da parte hartzeko. Ikasturte hasieran ematen dugu egitasmoari buruzko informazio guztia.



**Txalo bero bat Morkaikori, mendi itzulia antolatze-
agatik:** "Morkaikoren Eguna izan zen maiatzaren
11n, eta beste behin ere oso ondo irten zen guz-
tia. Txalo bero bat merezi du mendizale elkarteak,
egun horretan egiten duen lanagatik. Segi horrela!".



Txalo bero bat Sanlo EKTko Murgil Taldeko neskei: "Prime-
rako denboraldiari bukaera bikaina eman diozuelako, zorio-
nak. Ekipo aparta... Gipuzkoako txapelduna! Zorionak, eta
eutsi goiari!".

Txalo bero bat joan den asteburuan izandako txistu kontzertuengatik: "Garikoitz Mendizabalek eskainitako *Sosegua* lanaren
aurkezpenak txistua beste hainbat instrumentuz konbinatuta entzuteko aukera paregabea eskaini zigun, eta larunbatean El-
goibarko San Bartolome parrokian izan genuen txistu, koru eta dantza konbinazioa hunkigarria izan zen".





ESKERTZA

RAFAEL DE LA FUENTE ORTIZ

2013ko maiatzaren 20an hil zen, 82 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.






I. URTEURRENA

SABIN INTXAURRAGA REKALDE

2012ko maiatzaren 26an hil zen, 78 urte zituela
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, maiatzak 25,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.





I. URTEURRENA

CRUZ AGUIRRE GOYOGANA

2012ko maiatzaren 25ean hil zen, 79 urte zituela
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, maiatzak 25,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



‘Zertarako hegoak’ antzerkia eskainiko dute gaur zortzi Herriko Antzokian

‘Berria’-ren 10. urteurreneko ekitaldien artean sartu dute lana

Zertarako hegoak antzezlanaren taularatu-ko du Metrokoadro taldeak datorren barixakuan Herriko Antzokian, *Berria* egunkariaren hamargarren urteurreneko ekitaldien barruan. Bost aktore igoko dira ohol-tzara: Ainhoa Alberdi, Amaia Corral, Iñigo Ortega, Iraia Elias eta Joseba Roldan. Egoera absurdu batetik abiatzen da antzezlanaren aurkikuntza harrigarri baten berri eman du egunkariak, eta horren arabera, pertsona normal orok ditu super botereak. Baina ezertarako balio ez duten super botereak dira topatu dituztenak. Pertsona normal orok duen botereaz mintzo da, azken batean, *Zertarako hegoak* antzezlanaren; ezertarako balio ez duten gauzen garrantziaz, hain zu-



zen ere. Sarrerak salgai daude dagoeneko www.berria.info/berriataldea webgunean eta Pitxintxu liburu dendan. Egunean bertan Herriko Antzokiko lehiatilan ere salduko dituzte sarrerak. Emanaldia 20:30ean hasiko da.

Plazatik Gaztetxera lehiaketako bigarren fasea Elgoibarren hasiko da gaur gauean

Plazatik Gaztetxera bertso txapelketako bigarren fasea gaur hasiko da, eta lehenengo kanporaketa Elgoibarko Gaztetxean jokatuko dute. Bigarren fase honetan zortzi bikotek hartuko dute parte, bi saiotan banatuta. Gaur, beraz, ondorengo bikoteak ariko dira lehiatzen: Imanol Uribe eta Inazio Vidal, Aimar Goenaga eta Jon Mikel Mugika, Paula Amilburu eta Maddi Ane Txoperena eta Jon Gurrutxaga eta Josu Oiartzabal *Xenpelar*. 20:30ean izango da afaria, eta saioa 22:00etan hasiko da.

Taupadako Ana Moñux eta Nere Aspiazu saritu dituzte arte eszenikoen agerraldiko esketx bategatik



Taupada antzerki taldeko Ana Moñux eta Nere Aspiazu saritu dituzte Bergarako Koldo Eleizalde literatur lehiaketan. Bergarako Udalak 1986. urteaz geroztik antolatzen du Koldo Eleizalde lehiaketa, eta Bergaran jaio edo bizi direnek zein bertan ikasi edo lan egiten dutenek har dezakete parte lehiaketan, bakarka zein taldeka. Bost generotako lanak saritzen dituzte, eta antzerkien kategorian lehen saria eskuratu dute Taupada taldeko aktore bergararrek, joan zen maiatzaren 3an Elgoibarren estreinatu zuten Arte Eszenikoen Agerraldiko esketx bategatik.

Olatz Oñederrak irabazi du Eibarko jaietako kartel lehiaketa

Olatz Oñederra elgoibartarraren kartelak iragarriko ditu aurtengo San Juan jaiak Eibarren. *Danborraren kolorea* izenburuko lanari esker, 600 euroko saria jaso du diseinatzaile elgoibartarrak. Guztira, 27 lan aurkeztu zituzten lehiaketara.



Barnetegietan euskara ikasteko diru-laguntzak

Barnetegietan euskara ikasteko diru-laguntzak eman ditu Udalak. Egonaldiaren kostua 600 eurotik beherakoa baldin bada, Udalak gastu osoaren %40a (gehienez ere 180 euro) ordainduko die Udalak ikasle eta langabetei. Gastua 600 eurotik gorakoa bada, ordea, Euskara eta Kultura Batzordeak kasuan kasuko azterketa egin ondoren erabakiko du zenbateko diru-laguntza emango duen. Informazio gehiago 943 744 366 telefonoan edota www.elgoibar.org webgunean.

ETBko lehiaketa baterako partaideak behar dituzte

Euskal Telebistan lehiakideak behar dituzte, abian jarriko duten *Hizkamizka* lehiaketarako. Kultura orokorreko galderei erantzun beharko zaie, eta saio bakoitzean 300 euro irabazi daitezke. Saio bakoitzean bi lehiakidek hartuko dute parte, eta erantzun zuzen gehien ematen dituenak egingo du aurrera. Interesatuak hizkamizka@eitb.com helbidera idatzi dezakete.

15 puntuko aldeari buelta eman beharko dio Viento Sur saskibaloitaldeak

Eibarren jokatuko dute itzulerako partida bihar



Viento Sur saskibaloitaldeak igoera faseko joaneko partida jokatu zuen domekan Olaizaga kiroldegian, Eibarko Ruibal Alquiler de Vehiculos taldearen aurka. Debarreneneko taldeen arteko derbian eibartarrek irabazi zuten, 49-64 emaitzarekin. Hortaz, 15 puntuko aldeari buelta eman beharko diote elgoibartarrek itzulerako partidari. Bihar jokatuko dute partida Eibarren, Ipurua kiroldegian, 16:30etik aurrera. Kanporaketari buelta ematea zaila izango den arren, Viento Sur taldeko kideek ez dute Gipuzkoako Lehen Mailara igoera lortzeko itxaropena galdu, eta oraindik posible dela uste dute.

Gaur ekingo dio Elgoibarreko Herriarteko pilota txapelketari

Lagunak taldeko pilotariak gaur hasiko dira Herriarteko pilotata txapelketan. Astigarragako pilotariak izango dituzte aurrez aurre lehenengo kanporaketa honetan, eta joaneko norgehiagokak kanpoan jokatuko dituzte gaur, 19:00etatik aurrera. Itzulerako partidak datorren astean jokatuko dituzte, Elgoibarren.

Debarroko pilota txapelketako finala, bihar

Elgoibar Ikastolako frontoian jokatuko dituzte bihar Debarroko pilota txapelketako finalak. Kadeetean Arrasate eta Debako jokatuko dute; jubenetan Bergarak eta Soroluzek, eta nagusietan Soroluzek eta Arrasatek. 16:30ean hasiko dira partidak.

Mendaroarren galdu egin zuten Debako gizon probetan

Debarren Eguna izan zen joan zen zapatuan, eta ekitaldien artean, gizon probak antolatu zituzten. Debako eta Mendaroko taldeak izan ziren aurrez aurre, eta Mendarokoek galdu egin zuten. Debako taldeak bost plaza gehiago egin zituzten mendaroarren baino, 40, 5 plaza, hain zuten ere.



150 ume inguruk hartu zuten parte Igeriketa Egunean



Igeriketa Eguna antolatu zuen Elgoibarko Igeriketa taldeak joan zen zapatarako, eta "giro zoragarrian" ospatu zutela adierazi dute antolatzaileek. 150 bat umek hartu zuten parte jaialdian, eta era askotariko ur jolasak egin zituzten Olaizaga kiroldegian.

Igoera faseko lehen partida irabazi egin du Concepto Egilek

Bihar jokatuko dute itzulerako partida Olaizaga kiroldegian

Bigarren Mailara igotzeko kanporaketako joaneko partida irabazi egin du Concepto Egilek, Bartzelonako Montcada taldearen kontra. Bi bider markagailuan atzetik izan ostean, emaitzari buelta eman zioten elgoibartarrek, eta 2-3ko emaitzarekin irabazi zuten. Parekotasun handia erakutsi zuten bi taldeek, eta lehen minutuetan errespetu handia erakutsi zioten elkarri. Partida amaitzeko bost segundoren faltan, area inguruan baloi bat lapurtu eta Concepto Egilek garaipenaren gola sartu zuen. Itzulerako partida bihar jokatuko dute Olaizaga kiroldegian, eta partida horretan erabakiko da zein igoko den mailaz. 18:30ean hasiko da norgehiagoka.

Gehituz jaia

laz egin zuten moduan, Gehituz jaia antolatu du aurten ere Concepto Egilek. Ekai-



naren 7tik 9ra bitartean karpa jarriko dute Maalako parkean, eta hainbat ekintza izango dira bertan. Tartean, ajedrez txapelketa antolatu dute, eta interesatuek ekainaren 3rako eman beharko dute izena, delegado@debarrenafs.org helbidera idatzita.

Sanloko Murgil taldeak Gipuzkoako txapelketa irabazi du infantiletan



Sanloko Murgil taldeko neskek Gipuzkoako txapelketa irabazi dute infantiletan. Usurbilgo taldearen kontra jokatu zuten Zumarragan, eta 11-24 izan zen emaitza, elgoibartarren alde. Garaipen honi esker, Euskadiko txapelketako finala jokatu dute bihar, Durangon. 17:30etik aurrera izango da finala, Landako kiroldegian.

Uztailaren 13ra arteko epea dago kirol argazkien lehiaketan parte hartzeko

Gazteria eta Kirol sailek kirol argazkien lehiaketa antolatu dute, Ongarri argazkilari taldearekin batera. Interesatuek uztailaren 13rako aurkeztu beharko dituzte lanak. Partaide bakoitzak gehienez lau argazki aurkeztu ahal izango ditu. Sari banaketa abuztuaren 22an egingo dute, eta derrigorrezkoa izango da saridunak edo beraien ordezkariak saria jasotzera joatea. Lehiaketaren oinarriak www.elgoibar.org helbidean.

EMAITZAK

FUTBOLA

Balmaseda 4 – Haundi 1 (3. maila)
Elgoibar 3 – Intxaurdi 0 (Nesk.)
Elgoibar 2 – Touring 2 (Jub.)
Elgoibar 5 – Kostkas 4 (Kad. B)
Lazkao 5 – Elgoibar 6 (Ohorezko inf.)

ARETO FUTBOLA

Montcada 2 – Concepto Egile 3 (2B)

ESKUBALOIA

Alcorta Elg. 31 – Ereintza 30 (Sen. mut.)
Tecnifuelle Elg. 24 – Zarautz 20 (Sen. nesk.)
Donibane 28 – Gabaz 18 (Sen. mut.)
Lauko 14 – Lauko Elg. 27 (Jub. nesk.)
Beristain Elg. 26 – Pulpo 30 (Jub. mut.)
Ikus Elg. 18 – Aluminios aleman 23 (Kad. nesk.)
Eibar 33 – Txarriduna Elg. 20 (Kad. mut.)
Murgil Elg. 24 – Usurbil 11 (Inf. nesk.)
Aterpe Elg. 19 – Ereintza 17 (Inf. nesk.)
Cometel Elg. 17 – Egia Bera Bera 17 (Inf. nesk.)
Alkideba Elg. 14 – Tolosa 14 (Aleb. mut.)
Alkideba Elg. 24 – Eibar 4 (Aleb. nesk.)

PILOTA

Udaberriko 4 t'erdiko txapelketa
Lagunak 22 – Aretxabaleta 5 (Nag.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 25

18:30 Concepto Egile – Montcada (2B)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 25

11:00 Pneumax Elg. – Pulpo (Kad. mut.)

PILOTA (Ikastolan)

Zapatua, 25

16:30 Arrasate - Deba (Kad.)

17:00 Bergara - Soraluze (Jub.)

18:00 Soraluze - Arrasate (Nag.)

LANA.....
Eskaera

- Mutil arduratsua lan bila: Ostalaritzan, banaketan, okindegian, salmentan, nagusiak zaintzen edo margolari lanetan esperientzia.
☎ 606 072 354
- Mutila eskaintzen da garbiketarako edo zerbitzari lanetarako. ☎ 682 518 370
- Neska euskalduna eskaintzen da udako oportunitatean umeak zaintzeko. Ordutegi malgua.
☎ 618 814 064
- Emakumea lanerako prest: goizez edo asteburuetan. ☎ 699 232 823
- Emakumea garbiketarako edo nagusiak zein umeak zaintzeko prest. ☎ 653 075 865
- Emakumea lan bila. Autoa daukat, eta baserri lanetan esperientzia. ☎ 632 608 870
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Erreferentzia onak. ☎ 683 378 981
- Emakumea sukaldari, harrera edo zaintzaile lanetarako prest. ☎ 608 474 923
- Emakumea garbiketara lanetarako edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 662 267 141
- Emakumea etxeko lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 616 457 254
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest.
☎ 672 834 085
- Gizonezkoa adinekoak zaintzeko prest.
☎ 631 361 762
- Ingeles eta aleman klaseak ematen dira ekainean eta uztailan. Talde txikiak.
☎ 685 784 989

- Ingeles partikularrak, adin eta maila guztiak. Azterketa ofizialeterako prestakuntza, bussines English... talde txikiak.
☎ 680 858 550 / 943 741 594
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest. Gauzez ere bai.
☎ 685 724 861 / 943 748 899
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest. Gauzez ere bai.
☎ 671 975 753 / 666 089 485
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest. ☎ 632 054 894
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako edo nagusiak zaintzeko prest. Astean zehar goizez, eta asteburuetan egun osoz. ☎ 699 232 823

Eskaintza

- Asteburuetarako zerbitzaria behar da. Utzi CV Gautxo tabernan.

ETXEBIZITZAK.....

- Etxea alokatzen dut Ubitarte plazan. Dena bertuta. ☎ 943 742 442
- Buhardilla alokagai. 2 logela, sukalde, egongela, komun konpletua, igogailua. ☎ 616 111 603
- Aukera, Basarten! Etxea salgai. 231.000 euro. Hiru logela, bi komun, garaje itxia eta trastelekua.
☎ 618 151 420

GARAJEAK.....

- Garajea salgai Debako hondartzan.
☎ 648 203 775


- Garaje itxia alokatzen dut Ikastola ondoan.
☎ 943 531 648 / 669 916 148

KINTOAK.....


- 1963ko kintoen bazkaria Mendaron, ekainaren 22an. 13:00etan batuko dira plazan, eta gero, Landa jatetxean bazkalduko dute. 75 euro sartu behar dira maiatzaren 31rako, Kutxabankeko kontu honetan: 2095 5054 00 9112639504
- 1963an jaiotako eta aurten 50 urte betetzen dituzten elgoibartarren kinto bazkaria ekainaren 1ean. Izena emateko azken eguna, maiatzak 27. 85 euro. Laboraleko kontu honetan sartu behar da dirua: 3035 0007 25 0071126230
- 1973koen kinto bazkaria ekainaren 1ean. 13:00etan batuko dira Kalegoen plazan. Autobusa, Txankakoan, 14:00etan.
- 1953an jaiotako bazkaria, Sigma jatetxean, ekainaren 8an. Interesatuak 60 euro ordaindu behar dituzte Caja Ruraleko kontu honetan maiatzaren 28rako: 3008 0182 86 2662374814.

BESTELAKOAK.....

- Raclet-Corail karro denda salgai. 2 logela, 140x190. Estalpe itxia jantzigelarekin eta sukalderrako tarte. Ia erabili gabe. Lehen, 1.500 euro; orain, 700 euro.
☎ 686 344 252 (Santi)
- Autokarabana salgai. Fiat Hymer 594. 58.000km. Kaputxina 6 plazakoa. Oso ondo zaindua. 27.500 euro.
☎ 692 979 215 / 653 702 750



P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



- Orain dela 6 hilabete etxe jabe batek balkoia itxi zuen, eta orain, lehen bezala uzteko erabakia hartu dugu, baina etxebizitza hori saldu egin du. Zer egin genezake orain? C.M.


Balkoia guztien baliabidea da, eta itxiz gero, etxe jabe guztien baimena ez ezik, obra egiteko baimena ere behar du. Etxe hori erosi duenak bere aurrekoak egindako obren erantzun behar du. Atari horretarako Lehendakariak, jabeak guztien izenean, Euro-fax bat bidaliko dio, balkoia lehen zegoen bezala uzteko hartu den erabakia jakinaraziz, eta horretarako epea jarriko dio edo kexa jartzeko adierazpena egingo dio.

- Nire komunitatean, fatxada eta etxe azpian dagoen lokal komertziala pintatu nahi ditugu. Lokal komertzial horren jabeak ados dagoela esan digu, baina bakarrik berari dagokion fatxada zatiarena ordainduko duela. Zuzena da hori? V.P.

Elementu komunez ari garela, zuzena eta legezkoa zera da: lokal komertzial horrek dagokion partaidetza kuota araberakoa ordaintzea. Kuota hori salerosketako eskriturari erantsita joan ohi den obra berrien deklarazioan zehazten da.

Aholkua: Obra berriaren adierazpenean, jabe bakoitzak dituen partaidetza portzentajeak eta gastu zehatzak ez dituzten jabetzak ere ageri dira.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749







• 13 urte handi gure **etxeko printzesak**. Zorionak, eta segi beti bezain jator.



• Bihar 2 urteko beteko ditu gure marimatraka txikiak. Muxu, **Jare!** Enaitz, Oinatz, Haritz, Luken eta June.



• Zorionak, hilak 22an 6 urte egin zenituelako. Guraso, aiton-amona, osaba-izeba eta lehen-gusuen partez.



• Zorionak, **Carl!** Gure lehoitxoak 5 urte egin ditu. Patxo handi bat familiakoen, eta bereziki Egoiren partez.



• Zorionak zure hamargarren urtebetzean, eta muxu handi bat, Ibonen eta gurasoen partez.



• Zorionak, **Nahia**, bihar 7 urte jada! Muxu asko familiakoen, eta bereziki, Iratiren partez.



• Zorionak, **Pakita**, atzo 85 urte egin zenituelako. Lagunen partez.



• Zorionak, **Elai!** Oso ondo pasa genuen zure urtebetetze egunean.



• Zorionak, **Ane!** Dagoeneko 3 urte handi! Patxo handi bat etxekoan, eta bereziki, Noraren partez.



• Zorionak, **Sara**, atzo 7 urte egin zenituelako. Ondo pasatu zenuen? Patxo handi bat denon partez.



• Pila-pilla maite zaituztenen partez, zorionak!



• Zer uste zenuen zoriendu gabe geldituko zinela 18 urteko betetzean? Zorionak familiakoen partez.



• Zorionak, **Enara**, maiatzaren 20an 3 urte bete zenituelako. Familiakoan, eta bereziki, Arantzaren partez.




• Zorionak, **Aimar**, 5 urte betetzean. Muxu bat urte bakoitzeko. Zorionak, etxekoan eta bereziki Xubanen partez.



• Zorionak, **aitabxo eta Unax**, zuen 33. eta lehenengo urtebetetze egunean. Etxekoan, eta bereziki, Oinatz partez.




• Zorionak, **bikotel** Bihar izango da zuen eguna. Oso ondo pasal! Koadrilakoan partez.



Maiatzak 28an eskulanak
San Lazaro egoitzan.
Izenematea maiatzaren 27ra arte.

Udako programaketarako
proposamenak egiteko aukera dago
ekainaren 2ra arte.





LIRAIN ESTETIKA

GELI gurekin elkarlanean
Dietak, pisu kontrola, zelulitisa,...
Txanda hartzeko:
618 259 343
(Blak lleapaindegia) 943 742 725

San Inazio, 4
 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
lirainestetika@hotmail.es

Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENen edo www.elgoiBARREN.net
 webgunean

B ARREN
astekarian
943 744 112
barren.publi@elgoibarkoizarra.com



24 barixakua

Bertsolaritza

20:30 Plazatik Gaztebexera

Afaria, Gaztetxean.

22:00 Txapelketa

Gaztetxean.

26 domeka

Informazioa

10:30 Etxe kaleratzei buruzko

informazio mahala

Merkatu Plaza aurrean.

27 astelehena

Tailerra

17:00 Historia

Historia egin duten pertsonei

buruzko hitzaldia eskainiko du

Carmen Agirrek. Kultur Etxean.

28 martitzena

Tailerra

18:00 Literatura

Edith Whartonek idatzitako *Las*

hermanas Bunner liburua

landuko dute, Udal

Liburutegian.

TRINITATE JAIK ELGOIBARREN

25 ZAPATUA

9:00 Urpekaritza bataioa.

Kiroldegian. Izena emateko:

607 530 461

10:00 Trinitateetako azoka berezia

Lekueder parkean: Elgoibarko baserrietako produktuen salmenta eta dastatzea.

Aita Agirre plazan: Elgoibarko baserrietan hazitako abereen erakusketa.

10:30 Kalejira

Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako trikitilarien eta txistularien kalejira.

12:30 Herri kirolak

Nazabal, Olasagasti eta Esnaola aizkolariak; Aimar Irigoien eta Goenatxo II harrijasotzaileak eta Jon Larrañaga eta Eneritz Kaltzakorta trontzalariak.

16:30 Pilota

Debarroko Pilota Txapelketaren finala Ikastolako frontoian.

18:00 Dantza jaialdia

Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleen dantzaldia. Udal Txistulari Taldeak eta Haritz Euskal Dantzari Taldeak parte hartuko dute.

Kalegoen plazan (euria izanez gero, Lekuederren).

23:30 Nagusien danborrada

Udal Musika Bandarekin, Kalegoen plazan.

26 DOMEKA

9:00 Diana, Udal Txistulari Taldearekin.

9:00 Kaleko Margo Lehiaketa

Egur taldeak antolatuta, umeentzat eta nagusientzat. Izenematea, Kultur Etxeko sotoan.

10:00 Artisau azoka

Lekueder parkean.

11:00 Meza nagusia

Parrokiko Abesbatzaren laguntzaz, San Bartolome parrokian.

12:00 Haurren danborrada

Antolatzailea: Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskola.

13:00 -14:00 Margo Lehiaketaren lanak entregatzea, Kultur Etxeko sotoan.

14:30 Kaleko Margo Lehiaketaren sari banaketa

17:30 Erraldoi eta buruhandiak

Zezenzikletekin, Elgoibarko Dultzaineroekin batera.

ZINEA

'Hermosas criaturas'

24, barixakua: 22:15

25, zapatua: 19:00/22:15

26, domeka: 19:00

27, astelehena: 21:30

OKINDEGIA

26 domeka: **IBARRENEA**

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze) Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

24 Fernandez
25 Yudego
26 Yudego
27 Zabaleta
28 Barrenetxea
29 Ibañez
30 Garitaonandia
31 Etxeberria

Gauetz

22:00 - 9:00

Barrenetxea
Yudego
Yudego
Garitaonandia
Barrenetxea
Etxeberria
Garitaonandia
Etxeberria

TRINITATE JAIK MENDARON

24 BARIXAKUA

19:30 Kalejira, Bizi Poza txaranga-
rekin.

25 ZAPATUA

17:00 Zuhaitz jasotzea,
kanpai errepika
eta txapliguak

26 DOMEKA

10:00 Kalejira, Mendaroko
Txistulari Taldearekin.

11:30 Meza Nagusia

Elizako abesbatzak abestuko du,
eta Ameikutz musika eskolako
ikasleen ekitaldia izango da.

Ondoren, Ospas eta Sabin trikitila-

riei omenaldia.

14:30 Soinu joleekin bazkaria,
Aizpe elkartearen.

27 ASTELEHENA

11:00 Meza Santua, Trinitateko
baselizan.

12:00 Ikastolako bertso saioa

Ondoren, hamaiketako, Laja eta
Landakandarekin

14:30 Herri bazkaria,

Toki Alai jatetxean.

20:30 Herri afaria,

Laja eta Landakandarekin
eta bertsolariekin,
Aizpe elkartearen



ESKERTZA

JULIAN AGIRREGOMEZKORTA IRASTORZA

2013ko maiatzaren 17an hil zen, 69 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola, hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

CANDI ARREGUI BASTIDA

2013ko maiatzaren 16an hil zen, 73 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola, hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

CANDI ARREGUI BASTIDA

*Zeruan barrena bidea zabalik,
Rosak, Josefak, Delfinak eta Alejandrak hartu zaituzte pozik.
Boskotea osatu duzue, ez dago aitzakiarik,
Zeruan nahiz lurrean, segi karta jokoarekin.
Besarkada handi bat eta adiorik ez, Candi.*

2013ko maiatzaren 16an hil zen,
73 urte zituela.

*Susana, Idoia eta Gorka Azpillikueta. Ane, Aran, Jone, Patxi, Miren eta Olatz Beitia.
Imanol, Jaione, Itziar eta Jon Etxaniz. Maria Eugenia eta Cristina Gonzalez. Maite,
Idoia eta Ainhoa Gurrutxaga. Sebas eta Maite Suarez. Nekane Zabala.*



OROIMENEZKO MEZA

JUAN JOSE ARRILLAGA IRUSTA

Mexikon hil zen 2013ko maiatzaren 21ean, 78 urte zituela.

*Mexikora aspaldi joan bazinen ere,
Elgoibar beti egon da zure bihotzean,
eta zu geurean.*

Etxekoak

Bere oroimenezko meza **zapatuan, maiatzaren 25ean, izango da arratsaldeko 19:00etan**
Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.





Gremioen GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es

Ulazia

Aroztegia eta enbalaajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 531 847
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tailerra
San Antolin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Urruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
pagoagasa@euskalnet.net

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 · Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upalaz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

